

2015-2016
IKASTURTEA



Hemen gaude! Udako hilabeetan deskantsua hartuta, gogo betez ekingo diogu ikasturte berriari, aurrekoak utzitako aho zapore gozoa lagun.

Gure eskaintza eta sarea egonkortuta, auzolanerako gero eta esku gehiagorekin eta Nafarroa hegoaldeko produktuen gosea Euskal Herriko txoko guztietara hedatzen ari dela, erronka berriei erantzun beharko diegu ikasturte berrian. Kontsumo arduratsuaren bidera herritar gehiago erakarri eta erakarritakoak gurekin mantendu, ekoizle berriengana heldu eta gure herri eta auzoetan Errigoraren kontsumo komunitateak indartu beharko ditugu, besteak beste.

FRUITUAK ONTZEN ARI DIRA

Baina, aurtengoan egin nahi ditugunei heldu aurretik, atzera begiratzea komeni da, ondo egindakoak gogoan hartu eta horren ondo ez eginak zuzentzeko.

2012an egin zen lehenengoz udazkeneko saskien planteamendua eta, esperimendu arrakastatsu haren ondoren, **bi urtez jarri du Errigorak ikasturte osoko planteamendua mahai gainean**: udazkenean *euskarari puzka* eta urte berrian *eskutik eskura* (otsailen olio eta maiatzaren kontserbak).

Udazkeneko kanpainan milaka parte hartzaile izan dira bi urteotan. Milaka saski milaka sukaldetara, eta milaka euro Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzera. Dela ikastolen biziraupenerako, dela AEKko ikasleei bekak eskaintzeko edo euskaraz bizi eta ikasteko eskubidearen aldeko dinamiketarako, puzkada ongi etorria izan da.

Eskutik eskuran, aldiz, bestelako planteamendua egin da. Aurreko kanpainan besteko hedapena bi-

latu gabe, **herriz herri kontsumo komunitateak osatzen hasteko ahalegina** egin dugu, hauen eta Nafarroa hegoaldeko ekoizleen artean zubiak erakiz. Horretarako, ekoizle zein kontsumitzaileentzat bidezkoa den prezioan eskaini dira produktuak, urte osorako despentsa betetzeko asmoarekin.

Baina, hau guztia posible egin duena, bidea eginarazi digun motorra auzolana da. Azken batean, **auzolana izan da ekoizle eta kontsumitzaileen arteko bitartekari**, eta horrela da posible udazkenean saskiaren balioaren %25 euskalgintzara bideratzea eta, otsailen zein maiatzean olio eta kontserba loteak ekoizlearen jatorrizko prezioan eskaintzea.

Era honetan eskaini dizkio Errigorak **Nafarroa hegoaldeko produktuak Euskal Herriari eta Euskal Herria Nafarroa hegoaldeko produktuei**. Dirudieenez, eskaintzak badu eskaririk: gero eta ekoizle nafar gehiagok begiratzen dio Euskal Herriko plazari eta gero eta euskal herritar gehiagok begiratzen die Nafarroa hegoaldeko produktuei.

Honela ari gara, apurka-apurka eta gure apaltasunean, **askotariko harreman sareak ehuntzen**: kontsumitzaileen artean, ekoizleen artean, kontsumitzaile eta ekoizleen artean, euskaltzaileen artean eta euskal lurraldeen artean; desberdinen artean. Gure lurralde ematen dituen produktuak eta gure lurraldea egiten duten pertsonak erdigunean.



IAZKO IKASTURTEA

Begiratu diezaiogun orain joan den ikasturteak kanpaina bakoitzean utzitakoari:

EUSKARARI PUZKA

Urtero legez, udazkeneko kanpaina Zazpiak bat, Sor-tzen, AEK, Ikastolen Elkarte eta Errigoraren elkarla-naren emaitza izan zen. Kanpaina erraldoi hau ia 200 herritan burutu genuen, saskiak jasotzeko 700 bat gune eskainiz.

Emaitzak izugarriak izan ziren: 12.000 saski baino gehiago banatu eta 160.000€ bideratu genituen Na-farroa hegoaldeko euskalgintzara. Zorionak!

Iazkoan, gainera, saskiak osatzeko **auzolan eguna** **Ablitasen** egin genuen, asteburu beteko egitaraua onduz. Euskal Herri osoko euskaltzaleek egin genuen topo bertan, eta hitzez azaltzen zaila den atmosfera sortu genuen. Zinez hunkigarri eta ilusio sortzailea. Ezbairik gabe, errepikatzeko modukoa! Zatozte, ez

zaitzue damutuko eta!

ESKUTIK ESKURA

Otsailean etorri zen *Eskutik eskura* proposamenaren lehen atala: olio. 50 bat herritan eman zen olio bi-doiak eskatzeko aukera eta, prezioak nabarmen gora eginagatik, 9.100 bidoi heldu ziren 3.000 despentsa-tara. Bestela esanda, 45.500 litro. Maiatzean, berriz, kontserba loteak eskatzeko tartea eman genuen eta, berriz ere, ezusteko atsegina: 90.000 kontserba ontzi banatu genituen, ia aurreko ikasturtekoa bikoiztera helduz.

Emaitzak bikainak dira: olio eskaerek %50 egin zuten gora eta kontserba loteenek %80. Alabaina, aurrera begira kontuan izateko hutsunea antzeman genuen joan den ikasturtean: Errigoraren planteamendua kanpainotan urte osorako moduko eskaerak egitea bada ere, jende askok ez zuen halakorik egin, eta olio bidoi edo kontserba lote bakarria baino ez zuen eskatu. Hurrengo hilabeteetan, berriz, eskaera berriak jaso genituen; beranduegi.


ERRIGORAREN IBILBIDEAREN DATUAK



15.000

bat etxetan
egin dute bat
Errigorarekin

370.000
kontserba
ontzi



eta
88.000
litro olio ba-
natu ditugu

300.000€

300.000€ Nafarroa
hegoaldeko euskalgin-
tzari laguntzera

1,5M € ▲

Milioi eta erditik gorako
fluxu ekonomikoa eus-
kal lurraldeen artean



EKIMENEAN PARTE HARTU DUTEN EKOIZLEAK

2012: **2**

2013: **5**

2014: **10**

2015: **15**

GOAZEN EGINDAKO BIDEAN SAKONTZERA

Gure ibili laburrean ereindakoaren fruituek indar-berrituta eta beharrezko irakaspenak aterata, heldu zaigu ikasturte berriari kolpatzeko tenorea. Baina, ze helburu ditugu 2015-2016rako?

HELBURUAK

- Kontsumitzaileei dagokienez:
 - Jende berria erakarri eta lehendik ekimenean parte hartze dutenak mantendu behar ditugu.
 - 20 bat herritan Errigoraren inguruan kontsumo komunitateak trinkotzen hasteko pausuak ematera goaz.
- Ekoizleei dagokienez:
 - Ekimenera ekoizleak gehitzen jarraitu behar dugu. Udazkeneko kanpainan orain arte parte hartu gabeko bost etxe batuko zaizkigu, eta olioaren zein kontserben kanpainan ere ekoizle gehiagoren parte hartzea izango dugu, eskaintzaren formulai ere beste buelta bat emanez.
 - Ekoizleek euskararenganako hartzen dituzten konpromisoetan sakondu behar dugu.
- Errigoraren sareari dagokionez:
 - Komunitateak osatzeko asmoa dugun herrietan Errigorako taldetxoak osatu edo sendotu behar ditugu.
 - Iparraldean hedatu egin behar gara.

- Komunikazioari dagokionez:
 - Nafarroa hegoaldean ekimena ezagutarazi behar dugu.
 - Errigoraren urte osoko eskaintza irudikatu behar dugu, euskarari puzka eta eskutik eskura txanponaren aurpegi bi bezala aurkeztuz.
 - Errigorak euskarari, elikadura burujabetzari eta lurralde kohesioari egiten dizkion ekarpenen inguruan ilusioa piztu behar dugu.

IKASTURTERAKO PLANTEAMENDUA

Ikasturtearen eskema bere horretan mantenduko dugu aurtengoan ere. Aurreko bi ikasturteetan egindako bidean sakontzera goaz, beraz, Errigoraren erreferentzia momentuak indartu eta ekimena sendotuz.

URRIA-AZAROA: Funtsean ezer aldatu gabe, Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpaina Zazpiak Bat, Sortzen Ikastolen Elkarte eta AEKrekin elkarlanean landuko da. Euskal Herriko lurralde guztietan izango du zabalpena saskien kanpaina honek.

OTSAILA: Nafar hegoaldeko uzta, eskutik eskura olioaren kanpaina. Urte osoko beharrianen araberrako olio eskaria egiteko aukera zabalduko du Errigorak ildo hau garatuko den herrietan.

MAIATZA: Nafar hegoaldeko uzta, eskutik eskura kontserben kanpaina. Produktu ezberdinen kontserba loteak urte osoko kontsumo kantitateetan eskatzeko aukera eskainiko du Errigorak ildo hau landuko den herrietan.

Ekin diezaiozun bada lanari. Bidean ikusiko dugu elkar. Animo!



ERANSKINA

UDAZKENEKO KANPAINA
“Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka”

URRIAK 21 - AZAROAK 8
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka
HARTU ETA EMAN
SASKIA SOEREN TRUKE
AUZOLANARI ESKER

NAFARROA HEGOALDEKO
EUSKALGINTZARI %25



15 EKOIZLE

EBRON · MARIA JESUS · BARDEA
ITURRI · PEDRO LUIS · EL ESCOLAR
LA CASA DEL ACEITE · LA CHURTA
EKOLO · EL ROSARIO · ALMANAQUE
LEZAUN · MENDIKO · AZPEA · MELETA



3 PROIEKTU

LODOSA ETA VIANAKO IKASTOLEN
BIZIRAUPENA · ERRIBERAKO
AEK · D EREDUA NAFARROA
OSORARA ZABALTZEKO EKIMENAK

Aurtengo kanpaina ere Zazpiak bat, Sortzen, AEK eta Ikastolen Elkartarekin elkarlanean garatuko dugu, kanpainan landu beharreko edukiak *Hartu eta eman* ideiarekin inguruan bilduz:

- Saskia erosita Nafarroa hegoaldeko kalitatezko produktuak eskuratuko ditu kontsumitzaileak (hartu).
- Nafarroa hegoaldeko ekoizleei eta euskalgintzako eragile eta pertsoneri ekarpena eginez (eman).

DIRU EKARPENA

Hiru proiektuotara bideratuko da dirua aurtengoan:

- Lodosako Ibaialde eta Vianako Erentzun ikastola: Bizirik irauteko ezinbesteko duten elkartasun ekonomikoa indartzera.
- Erriberako AEK: Egoera ekonomikoa arintzera, beka fondoa handitu eta zabaltzera eta sustapen kanpaina bat garatzera.
- D ereduaren Nafarroa osora zabaltzea bilatzen duten ekimenetara.

EKOIZLEAK

ko dizkigutenak:

Azpea (Irunberri), Lezaun (Lakar) eta Mendiko (Oibar) upategiak; Bardea (Kaseda), Castillo de Ablitas (Ablitas), Ekolo (Arroniz) eta La casa del aceite (Cascante) olio errotak; Almanaque (Andosilla), Ebron (San Adrian), El Escolar (San Adrian), Iturri (Arroniz), La Churta (Allo), Maria Jesus (Ablitas), Meleta (Mendabia) eta Pedro Luis (Lodosa).

Aurtengo kanpainan 5 ekoizle berri izango ditugu eta, beraz, 15 izango dira euren produktuak eskaini-

SASKIA

Saskiaren salneurria 50 eurokoa izango da. Gutxi gorabehera, merkatuan izango lukeen prezioan eskainiko dira produktuak, baina, kasu honetan, jasotakoaren %25 aipatutako proiektuetara bideratuko da.



Saskiaren konbinazio desberdinak egongo dira, kasu batzuetan hainbat ekoizlek jarriko baitute produktu bera. Hona hemen produktuen zerrenda:

- Ardo beltz botila (Azpea, Lezaun edo Mendiko)
- Litro erdiko oliba olio birjina estra botila (Bardea, Castillo de Ablitas, Ekolo edo La casa del aceite)
- Melokotoia almibarrean (Almanaque)
- Orburuak (Ebron edo Maria Jesus)
- Potxak (La Churta edo Maria Jesus)
- Kardua (Maria Jesus edo Pedro Luis)
- Mahats zukua (Ekolo)
- Almendrak (Ntra. Sra. del Rosario)
- Pikillo piper ontzi txikia (Iturri)
- Pikillo piper ontzi handia (El Escolar edo Meleta)
- Zainzuriak (Iturri)
- Melokotoi marmelada (Pedro Luis)
- Pikillo piper untapana (Almanaque)

EGUTEGIA

- Urriaren zehar kanpainarako dena prest.
- Urriaren 21ean kanpaina hasiera: prentsaurrekoa.
- Azaroaren 8a eskaerak jasotzeko azken eguna.
- Azaroaren 20-22ko asteburuan auzolana Ablitasen.
- Azaroaren 16 eta 29a bitartean saskien banaketa.
- Azaroaren 30a eta abenduaren 6a bitartean ordainketak.

URRIA						
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	1
AZAROA						
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
ABENDUA						
30	1	2	3	4	5	6
KANPAINA		BANAKETA			ORDAINKETA	